

# MEMORIA

## “EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ZENBAIT JARDUERA”








*erreniega* I.P.

Z I Z U R   N A G U S I A

## AURKIBIDEA

---

	IKASTETXEAREN DESKRIBAPENA .....	3
	GURE URRATSAK .....	4
	HELBURUAK .....	7
	EKINTZEN DESKRIBAPENA .....	8
~	IKASTETXEAREN HEZKUNTZA PROIEKTUAREN LAN-TALDEA	
	Euskararen diagnosis .....	8
	"Etiket hasi behar delako" kanpaina .....	9
	Eskolaren logotipoa eta Web .....	9
	Eskolako agenda .....	10
	Ikastetxearen erabilera plana .....	11
~	EUSKARA KURRIKULARRAREN LAN-TALDEA	
	Oinarri teorikoa eta zenbait akordio .....	11
	Ahozotasuna gelan lantzeko ekintzen bilduma ....	11
	Hizkuntzaren adierazleen azterketa .....	11
	Irrati saioak .....	12
~	LIBURUTEGIA LAN-TALDEA	
	Liburutegiko araudia .....	12
	Liburutegiaren informatizazioa .....	12
	Liburu kokapen marka .....	12
	Irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko ekintzak ....	13
	Euskal idazleekin topaketak .....	13
~	INFORMATIKA LAN-TALDEA	
	Informatika gelako funtzionamendua hobetu .....	13
	Materialak .....	14
~	BESTE EKINTZA BATZUK	
	Eskolako aldizkaria .....	14
	Antzerkia .....	14
	Bertsolaritza .....	15
	Kultur astea .....	15
	Ikastetxean sortutako ikus-entzunezko materialak	15
	BALORAPENA .....	16

## IKASTETXEAREN DESKRIBAPENA

---

ERRENIEGA IP Zizur Nagusian kokatzen da. Zizur Nagusia Iruñetik hurbil dagoen herria da, landa eremuan kokatua. Azken urteotan hirigune kutsua daukan herria bilakatu da.

Erreniega ikastetxea eremu zabal batean kokatua dago, bertan haur-eskola eta haur eta lehen hezkuntzako A-G ereduko ikastetxea ere daude.

*DATU BATZUK:*

### GIZA BALIABIDEAK

§ IKASLEGOA: 589 ikasle, 203 Haur Hezkuntzan eta 386 Lehen Hezkuntzan.

§ IRAKASLEGOA: 42 irakasle.

§ IRAKASLEAK EZ DIRENAK: 2 atezain eta administrari bat.

### BALIABIDEAK

§ LIBURUTEGIA.

§ INFORMATIKAKO GELAK: Irakasleentzat eta ikasleentzat.

§ HAURTZAINDEGI, JANTOKI ETA GARRAIO ZERBITZUAK.

§ 28 TUTORETZA.

§ BESTE GELA BATZUK: Musika, ingelera, erlijioa.

§ ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK: Udalak eskaintzen dituenak eta eskolan bertan guraso elkarteak antolatutakoak: trikitixa, pandero eta informatika.

Erreniega IP Zizur Nagusiko D ereduaren historiari lotuta dago. Garapen honetan gure proiektua kokatzen da.

1984-85 urtean Zizur Nagusian D eredia sortu zen. Guraso talde batek bultzatua, 3 urteko bederatzi ikasleekin euskarazko gela bat ireki zen Zizurko udalaren babesean. Geroztik, garapen nabaria izan du euskarazko irakaskuntzak gure herrian.

2000.urtean Zizur Nagusiko eskualdeko ikastetxea handiegia zen, 1200 ikasle inguruk osatzen baitzuten. Horri irtenbide bat eman nahian, Nafar Gobernuak ikastetxea banatzea, hizkuntza-ereduak kontuan harturik, erabaki zuen. Horrela, eraikuntza gorrian kokatzen zen eredia (D) ikastetxe propio bihurtu zen. Sortutako ikastetxeari ERRENIEGA IP deitu genion. Eraikuntzaren zabalkuntza ere urte honetan burutu zen. Hurrengo ikasturtetan ikastetxearen hirugarren lerroa finkatu zen: 3-12 urte bitarteko 590 ikasleekin. Honetaz gain, zutabeak ezartzeko lan handia egin zen antolamenduan eta maila pedagogikoan: matematikako kurrikuluma berritu zen.

2004.urtean, nahiz eta bide luzea egina izan, ikastetxearen Hezkuntza Proiektu propioaren beharra ikusten zen: nortzuk gara, zeintzuk dira gure nortasun ikurrak, zein da gure ildo pedagogikoa,... Zizur Nagusian, Erreniega IP da irakaskuntza euskaraz duen Lehen Hezkuntzako ikastetxe bakarra, beraz hizkuntza, euskara, hain zuzen ere zen gure ezaugarri nabarmenena. Horregatik euskara bihurtu zen gure proiektuaren garapenaren zutabea.

Beste aldetik, kurrikular mailan, matematika arloaren garapena burutu ondoren hizkuntza arloaren garapenari ekin behar izan genion. Honekin batera, beste hausnarketa batek pisu handia hartzen zuen: hirugarren mailatik gora astero hiru saio gaztelania ematen dira eta lehenengo mailatik gora bost saio ingelera, beraz zein da hizkuntza bakoitzaren esparrua gure ikastetxean? Zalantzarik gabe, euskara izan zen honetan ere abiapuntua. Beraz, euskara Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua garatu ahal izateko (euskara, gaztelania, ingelera) gure ardatza bihurtuko zen.

Hau guztia garatu ahal izateko, prestakuntzaren beharra eta ikastetxearen baliabideak indarrean jartzea ezinbestekoa ikusten genuen. Era honetan, 2004-2005 ikasturtean gure ikastetxean klaustro osoak parte hartu zuen "Euskara sustatzeko estrategiak" moduluan. Dinamika berbera mantendu da ondorengo ikasturtetan. 2005-2006 ikasturtean "Ahozko Hizkuntzaren trebakuntza. 100 bat aktibitate ikasgeletan ongi mintzatzeko" modulua ikastetxean bertan garatu zen. 2006-2007 ikasturte honetan, irakasle talde banak hiru modulu hauetan parte hartuko du: "Irrati saioak eskolan", "Piki programa", eta "Eskolako liburutegia: dinamizatzeko proposamenak".

Honetaz gain, 2004-2005 ikasturtean beste prestakuntza mota berri bat aukeratu zen: lan-taldeak. Honek, alde batetik koordinazio bertikala errazten zuen; beste aldetik, ikastetxeak zituen baliabideak: liburutegia eta informatika gelak talde baten ardurapean geratzen ziren, honek baliabide hauen indartzea eta aberastea suposatuko luke eta gainera aukera ematen zuen euskararen garapen kurrikularra eta hezkuntza Proiekturako garapena aldi berean egitea ahalbideratzen zuen.

Zikloetan beharrak ausnartu eta helburuak idatzi ondoren lau lan-talde sortu ziren:

§ Informatika lan-taldea.

§ Liburutegia lan-taldea.

§ Euskara kurrikularra lan-taldea.

§ Hezkuntza Proiektuaren lan-taldea.


Talde bakoitzean ziklo guztietako irakasleak zeuden, honek koordinaketa zikloetan ere errazten zuen. Antolaketa honek beste abantaila batzuk ere zituen: ILZ eta Euskara Zerbitzutik aholkularitza jasotzea eta lan-talde bakoitzak ILZtik lortutako diru-laguntza.

Bi ikasturtetan jarraian antolatu dira lan-taldeak eta ikasturte honetan ere irakasle taldeek bere eskaera prest dute. Honek ez du esan nahi antolaketa hau iraunkorra izango denik, gure beharren arabera aukeratua dago, agian etorkizunean honen beharra ez da egongo eta beste modu batez antolatuko da komuneko lana.

- § Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren berrikuntza.
- § Euskara gure ikastetxearen hizkuntza propio bezala definitzea, Hizkuntza Proiektuaren zutabea bihurtuz.
- § Euskararen curriculumaren egokitzapena eta garapena jorratzea.
- § Ikastetxeko liburutegiaren erabilera eta irakurketa plana bultzatea eta indartzea.
- § Lan-taldean bitartez irakasleen koordinazioa hobetzea.
- § Ikastetxearen baliabideen erabilera sustatzea, informatika eta liburutegia gure proiektuaren indar bultzatzaileak bezala erabiliz.
- § Gure hezkuntza komunitatearen partaide guztien parte hartzea bultzatzea: gurasoak, ikasleak, irakasleak eta irakasleak ez diren langileak.
- § Zizur Nagusiko gainontzeko erakunde publikoekin (Udaletxea, Kultur Etxea, Euskara Zerbitzua, Gaztetxea, Ludoteka, Oinarrizko Giza Zerbitzua, Osasun Etxea) koordinatzea eta elkar lanean aritzea Erreniega ikastetxearen presentzia sendotuz.

Euskararen diagnostia

2004-2005 ikasturtean, jasotako prestakuntzan oinarrituak: "Euskara sustatzeko estrategiak" lan-talde honek euskararen diagnostia egin zuen. Honen helburua, ikastetxeko euskararen erabilera neurtzea izan zen. Diagnostia egiteko bi tresna batik bat erabili ziren: mintzagrama eta branka. Inkesten bitartez hezkuntza komunitatearen sektore guztietan euskara erabileraren neurketa egin zen.



Diagnostiaren emaitza baikorra izan zen barruko erabilerarekin; alde batetik, eredu bakarreko ikastetxea izateak eta beste aldetik, aurreko ikasturteetan garatutako lanak horrela erakusten zuten. Dena den, familien sektorean



emaitza eskasagoa izan zenez zerbait praktiko egitearen beharra ikusi zen.

Zizur Nagusiko Euskara zerbitzuaren arduradunari gure lanaren berri eman genion eta beste gai batzuetan bezala, honetan ere elkarlanean aritzea adostu genuen.

#### "Etxetik hasi behar delako" kanpaina

Euskararekiko jarrera positiboa bultzatzen zuen triptikoa sortu zen. Honetan, guraso euskaldunek zein ez euskaldunek euskararen erabilera bultzatzeko aholkuak aurkitzen zituzten. Ikastetxeko familia guztiei banatu zitzaien.

Gaur egun, familia berriei banatzen zaie. Honetaz gain, kanpaina honen izenpean, ikasturtero gurasoei zuzendutako euskara eta jokoen ikastaroak antolatzen dira.

#### Eskolaren logotipoa eta Web

2004-2005 ikasturtean gure nortasun ildoak azpimarratu nahian ikastetxearen logotipoa eta Web orria sortu genituen [www.pnte.cfnavarra.es/erreniegaip](http://www.pnte.cfnavarra.es/erreniegaip). Hauen aurkezpen ofiziala 2005eko martxoaren 4an egin zen ikastetxean: logotipoaren inguruan erakusketa bat antolatuz eta Web orriaren aurkezpena liburutegiko eskolan eginez.

Logotipoaren egilea Karmele Tamayo da (guk ezaguna dugun diseinatzaile grafikoa). Eskola partehartzaile eta dinamikoaren ideia bilatzen du; beste aldetik letra motak eskola batean gaudela gogorazten digu.

Beraz, ikasturte horretan, logotipoa sortu eta zabaldu egin zen. Honen helburua, eskolak behar zuen identifikazio-ikurra sortzea izan zen. Gurasoei komunikatuen bitartez gure asmoaren berri eman zitzaien. Eskola kontseiluak ere Hezkuntza Proiektuaren berrikuntza

onartu egin zuen, ikastetxeko nortasun ezaugarriak azpimarratzeko ekintzak bultzatuz.

Ikastetxearen atari nagusian ikasleek logotipoaren inguruan egindako lanen erakusketa jarri zen. Logoaren marrazkiari, testuari eta logoaren funtzioari buruz ere hausnarketa sendo bat egin zuten gure ikasleek. (I eranskinean ikasleek garatutako ekintzen laburpena dago).

Logo daraman materiala sortu zen: haur eta helduen kamisetak, eskolako posta (folioak eta kartazalak), eskolako zigilua, kanpoko sarrera nagusian jartzeko errotulua ikastetxearen izenarekin eta logotipoarekin. Ondorengo ikasturteetan material gehiago atera dira: eskolako txandala, festetako zapia, eskolako agenda.

Web orria ikastetxeko produkzioa izan zen, ikastetxeko sektore desberdinetako langileek sortua. Erabat interaktiboa, bizia, eta maiz berritzen dena. Helburu nagusia gure hezkuntza komunitatea ezagutzera ematea izan zen. Oraindik atal batzuk osatzeko daude; hala ere, ikastetxea kaleratzeko tresna oso baliogarria da.

Gure nortasun ezaugarriak gizartearen sektore desberdinetan zabaldu nahi izan genituen. Horregatik, gure Hezkuntza Komunitatean garatutako lana ezagutzera eman genuen, komunikabide ezberdinen bitartez (Diario de Navarra, Diario de Noticias, Euskal Herriko Irratia eta herriko bi aldizkari: Alrevés eta Ardui). Era berean, udaletxeko Hezkuntza Batzordean, gure partaidetza aprobetxatuz guzti honen berri ere eman zen.

### Eskolako agenda

2005-2006 ikasturtean eskola agenda sortu genuen. Soilik euskaraz egina dago. Honen bitartez, ikasle, irakasle eta gurasoen arteko komunikazioan euskararen presentzia bermatzen da, hizkuntza lantzeko tresna

bihurtzen delarik. Bertan, argibideak, aholkuak, atsotitzak, ikasleek idatzitako araudiak,... aurki daitezke.

### Ikastetxearen erabilera plana

Dokumentu honetan biltzen da gure eskolan euskara duen trataera estamentu, dokumentu eta ikastetxearen kanpoko harremanetan. Euskara, ikastetxearen hizkuntza propio da.(Ikusi II eranskina).

## EUSKARA KURRIKULARRAREN LAN-TALDEA

### Oinarri teorikoa eta zenbait akordio

Talde honen lehenengo pausoa, 2004-2005 ikasturtean zenbait apunte teoriko aztertzea eta laburtzea izan zen; Uri Ruiz de Bikandi: "Didáctica de la segunda lengua en Educación Infantil y Primaria". Gelako programaketak ere hausnartu ziren. Galdetegi bat prestatu eta tutore guztiei pasatu zitzairen, emaitzak aztertu eta ondorioak aterez.

Hizkuntza idatzia eta irakurketa liburutegiko lan-taldean gehiago lantzen zenez, ahozkotasunaren trataerari lehentasuna eman zitzaion.

### Ahozkotasuna gelan lantzeko ekintzen bilduma

2005-2006 ikasturtean Aitor Zenarruzabeitiak emandako moduloan jasotako materiala gehi taldeak aztertutako material batzuen bitartez, ahozkotasuna gelan lantzeko zenbait joko eta ariketa bildu eta zikloetara pasatu ziren martxan jartzeko.

### Hizkuntzaren adierazleen azterketa

Ahozko hizkuntzari buruzko adierazleen azterketa egin zen zikloz ziklo.

## Irrati saioak

Hurrengo ikasturterako, asmoa dago irrati saioak eskolan egiten hasteko. Lan-talde honek proiektu honen koordinazioa burutuko du, ikastetxean jasotako prestakuntzari esker.

## LIBURUTEGIA LAN-TALDEA

Lan-talde honen lana, hiru arloetan zentratu zen:

- § Liburutegiko funtzionamendua hobetu.
- § Liburutegiko liburuen informatizazioa.
- § Ikastetxearen Irakurketa Plana osatu eta indarrean jarri.(Ikusi III eranskina).

## Liburutegiko araudia

Liburutegiko araudia dokumentu praktiko batean bildu zen eta gela guztietara banatu zen.

## Liburutegiaren informatizazioa

Dagoeneko, 2000 inguru liburu informatizatu dira. Hurrengo pausoa, "eduges" programatik "abies" programara eskolako irakurle guztiak pasatzea izaten ari da eta "irakurle karneta" berriak inprimatzea.

## Liburu kokapen marka

Ikasle batek irakurritako liburua bere lekura itzuli behar izaten zuenean arazoak sortzen ziren askotan: non ote zegoen? Horregatik, 2004-2005 ikasturtean lan-taldeak antolatua, eskola osoaren ikasleek bere marka liburua diseinatu zuten. Guztiak liburutegiko pasabidean ikusgai jarri ziren. Gaur egun ere ikasleak liburutegira joaten direnean ez dute bere marka liburua ahazten.

### Irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko ekintzak

Guzti hauek ikastetxearen irakurketa planean (III eranskina) bilduta daude. Dokumentu hau sortu zenetik (2003-2004 ikasturtean) berritu, osatu eta bertan agertzen diren ekintzak sistematikoki landu dira ikasturtero.

Adibidez, ikasle nagusiek txikiak tutorizatzen hasi ziren ipuin bat prestatuz eta kontatuz. Ekintza berbera gaur egun ere egiten da, aberastu egin delarik. Ikasle nagusiek, produkzio idatziak egin eta txikiei kontatu ondoren haien produkzioak oparitu egiten diete; era honetan, haiek idazleak bihurtzen dira.

### Euskal idazleekin topaketak

Ikasturtero hiru idazle ala ilustratzaileen bisita jasotzen dugu ikastetxean. Lehen Hezkuntzako lehenengo, hirugarren eta bosgarren mailetako ikasleek aukera dute hauekin saio batean elkarrizketaren bitartez literatura munduan murgiltzeko. Bisitaren harrera mimo handiz prestatzen da, liburutegiko sarreran ala ikastetxearen atari nagusian, etorriko den idazlearen lanak erakusten dira, baita honen inguruan ikasleek sortu dituztenak ere. Era honetan, gainontzeko ikasleen interesa ere pizten da.

## INFORMATIKA LAN-TALDEA

### Informatika gelako funtzionamendua hobetu.

Informatika gela eta ikus-entzunezko tresnak erabiltzeko tutoriala sortu.

Gela eta gelako materialak txukundu eta apaindu egin ziren.

Irakasle guztiei pasatutako inkesta baten bidez informatika gelaren erabilera aztertu zen: Nork erabiltzen duen, nola, zer egiteko, zein arloetan, zein nolako

programak diren gehien erabiltzen direnak, zeintzuk diren irakaslek ikusten dituzten beharrak, nahiak...eta abar.

### Materialak

CLIC programa ordenagailu guztietan instalatua eta arloka sailkatua dago.

PIKI programa euskaraz argitaratu berria da. Ikastetxean honen prestakuntza jasoko da eta talde honek programa hau dinamizatuko du.

## BESTE EKINTZA BATZUK

Ikastetxean garatzen diren beste jarduera batzuk, lantaldeetan egindako lanek osatzen dute. Hauek sistematikoki lantzen diren neurrian aukera ezin hobe bihurtzen dira hizkuntzaren erabilera bultzatzeko.

### Eskolako aldizkaria

2003-2004 Ikasturtean 6. mailako ikasleen laguntzarekin ikastetxeko "e.gurea" izeneko aldizkaria sortu zen. Dagoeneko bost ale kaleratu dira.

Ikastetxe mailan gertatutako ekitaldiak, ekimenak, pasadizoak... kontatzen ditu.

### Antzerkia

Ikasturtero, hirugarren zikloko ikasleek antzezlanak prestatzen dituzte eta ikasle txikiei eskaintzen dizkiete. Irakurketa trukaketan bezala, ekintza honek ikasle txikiengan hizkuntza murgiltze prozesua sustatzen du; beste aldetik, ikasle nagusiek jende aurrean ahozkoa egitean kumunikabide honen helburaren kontzientzia hartzen dute.

## Bertsolaritza

Astero 5. mailan bertsolaritza saio bat dute eskola-ordutegiaren barruan. Ikasitakoa, ikastetxearen jaietan erakusten da: inauteriaren pregoia, kultur asteko emanaldiak.

## Kultur astea

Ikasturtero kultur astea ikastetxean ospatzen da. 2005-2006 ikasturtean, ahozko hizkuntzaren erabilera bereziki bultzatuz, "Hitza" inguruan antolatu ziren ekintzak: bertsolariak, ipuin-kontalariak, musika emanaldia, ikasleen arteko antzerki, ipuin eta atsotitzen trukaketak.

## Ikastetxean sortutako ikus-entzunezko materialak

Duela bost urte hasi ginen proiektuak burutzen, hau gure bosgarren kurtsoa izanik. Material hauek irakasleen lanerako baliogarriak izan daitezzen prestatzen dira. Bideo gehienetan ikasleen inplikazioa derrigorrezkoa da, hauek gogoz sartzen dira lan honetan. Informazioa emateaz gain, helburua, edozein ahozko adierazpen testua lantzea da.

Hona hemen orain arte ekoiztutako materialen izenburuak:

- § "Jon Ausart Jauna". Antzerki lan bat.
- § "Patxi Zubizarreta". Patxiri engindako galderak eta beren erantzunak.
- § "Animalien hitzaldiak". 5. mailako ikasleek prestatuak eta aurkeztuak.
- § "Horra, horra, gure Olentzero!" Txikienek Eskolako Olentzeroren jaia ezagutu eta gogoratu ahal izateko.
- § "Egun bat eskolan". Gurasoek 3 urtetako umeak ikusiko dituzte egun batean zehar gure eskolan.

§ "Igerabide eta olerkia". Ikasleek Juan Kruz Igerabideren olerkietan oinarriturik, 4. mailako ikasleak sortutako olerkien aurkezpena.

## BALORAPENA

---

Helburuak berrikusten dugunean, ikusten dugu ikastetxeak emandako pausoak emankorrek izan direla. Hezkuntza Proiektua jadanik martxan dago. Honetan, eskolako sektore guztiak inplikatu dira, gure nortasun ikurrak nabarmenagoak dira orain. Kanpoko erakundeekin koordinazio oso funtzionala izatea lortu da. Proiektu honen lan plana ildo berberan jarraitzeko asmoa dugu: dinamikoa eta berritzailea.

Hizkuntza Proiektuaren garapenerako lehenengo pausoak ere emanda daude, euskara honen ardatza delarik. Dagoeneko, Proiektu honen garapena bide luzea eta konplexua dela badakigu. Oraingoz, ibilbide xumea egiten ari gara, praktikotasunari helduz. Askotan, gure kurrikulumetan egiten ditugun hainbat jardueri zeharkako kutsua ematen diegu, kontuan izan gabe, bere sistematizazioak suposatzen duen aberastasuna. Hala ere, jarduera xume hauen sakonean hizkuntzaren erabilera sustatzeko balio pedagogiko haundia dago.

Lan-taldeen bitartez, koordinazio maila zabaldu egin da eta ditugun baliabideei etekin gehiago atera diegu.